ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko ekainaren 22a, astelehena • 71 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# VITORIA-GASTEIZKO UDALA

## HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBEZITZAREN, GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

### Garapen Estrategikoa eta Etxebizitza

**291/2026 Prozedura arruntean epea jartzea**

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. sekzioan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (291/2026 zenbakiko prozedura arrunta) izapidetzen ari da; E. F. O. Z. R. A. k aurkeztu zuen errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2025eko abenduaren 22ko erabaki baten kontra (2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia), zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikuluaren ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 9an

*Hirigintza zuzendari nagusia*
*MIKEL INCHAURBE OCERINJAUREGUI*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.06.22 06:32:17 Z